

ELENE ETA 'RR'

Egun batean, Elene izeneko neska bat baserrian bizi zen. 9 urte zituen, eta bere familiarekin bizi zen. Lagunekin egotea asko gustatzen zitzaion eta bote boteka jolastea ere bai, beti irabazten zuelako, baita ikastolan ere.

Arazo bat zuen, 'RR' ez zuen ondo ahoskatzen eta horregatik, lotsatia zen. Baina ausarta zen, gelako ausartena. Malen eta Irati bere lagun onenak ziren, beti egoten ziren batera eta Eleneri ez zioten burlarik egiten errearekin zuen arazoagatik. Arazoagatik ikastolara joaten zenean asko kostatzen zitzaion hitz egitea.

Eleneren gurasoek logopeda baten beharra zutela pentsatu zuten. Elenek esan zuen:

- Zer da logopeda bat? -Eleneren gurasoek esan zioten:
- Modu egokian ahoskatzeko lan egiten duen pertsona da.

Hurrengo egunean, Eleneren gurasoek logopeda bat aurkitu zuten, baina beste herri batean zegoen. Elene ikastolatik bueltatu zenean, gurasoek esan zioten Arrasaten zegoela, eta hara joan behar zuela. Elenek esan zien ez zitzaiola axola beste herri batean izatea. Gurasoek Eleneri esan zioten, ikastola ondoren ordu bat iraungo zuela.

Elene, baratxuria baino finagoa zen, beraz 'RR' ondo ahoskatzea lortuko zuen egindako ariketekin.

Lehenengo aldiz, logopedarengana joan zirenean, autobusez joan ziren. Illare oso urduri zegoen, ez zelako iñoiz joan horrelako leku batera.

Bat-batean, autobusa gelditu egin zen, eta autobuseko denak larritu egin ziren ez bait zekiten zer gertatzen ari zen. Autobuseko gidariak esan zuen:

- Gasolina bukatu egin da eta beste autobus bat hartu beharko duzue.
- Denak haserre eztabaidan hasi ziren eta Elene eta gurasoek esan zuten:
- Berandu iritsiko gara.

Eleneren gurasoek logopedari deitu zioten esanez beranduago iritsiko zirela. Logopedak galdetu zuen ea zergatik helduko ziren berandu, eta Eleneren gurasoek azaldu egin zioten. Logopedak berriz, esan zuen:

-Lasai ibiltzeko, itxarongo zutela.

Ordu eta erdi pasatu ondoren, autobus berria heldu zen. Autobusa hartu eta azkar batean Arrasatera heldu ziren. Autobusetik jeitsi eta bizkor-bizkor logopedarengana abiatu ziren. Tinbrea jo eta logopedak atea zabaldu zien. Eleneren gurasoek barkamena eskatu zioten logopedari eta logopedak esan zuen:

- Lasai, gauza hauek gertatzen dira.

Maitane izena zuen logopedak eta ile luzea zuen. Begiak, marroiak zituen, eta gaztea zen. Lehenengo saioarekin hasi ziren. Maitane eta Elene bakarrik geratu ziren. Poliki-poliki 'RR' ahoskatzeko ariketa batzuk egiten hasi ziren, mingaina indartuz. Elene, konturatu orduko, saioa bukatu zuten. Maitane agurtu, eta autobusa hartu zuten. Elenek gurasoei esan zien:

- Maitane oso jatorra da, eta berarekin oso gustora egoten naiz. Etxean ariketa batzuk egin beharko ditut, eta poliki-poliki 'RR' ondo ahoskatzea lortuko dut.

Eleneren gurasoek esan zuten:

- Oso harro gaude zutaz Elene, jarrera horrekin ondo ahoskatzea lortuko duzu.

Egun batzuk pasatu ondoren, Elenek bere helburua geroz eta gertuago zegoela konturatu zen.

Behin, ikastolan, ozen irakurtzea tokatu zitzaion:

- Erregeak dirua lapurtzea nahi du. -esan zuen Elenek.

Bat-batean gela osoa ixildu zen, eta bere bi lagunik onenak oihukatu zuten:

- Elene!!! primeran egin duzu, 'RR' ondo ahoskatzea lortu duzu!!!

Elenek irribarre egin zuen, eta bere bi lagunik onenei besarkada handi bat eman zien. Klasea bukatu ondoren irakaslea gerturatu, eta esan zion:

- Oso ondo Elene, saiatu eta saiatu... lortu!!!

Eta horrela lortu zuen Elenek 'RR' ondo ahoskatzen.

Ezizena Alaitz Gonzalez